

Reala ♦ Aranbururi azkenean ez diote deitu

Ez doa Espainiako selekziara

*Bera da Realean azken sei
partiduetan titular jokatu
duen bakarretako bat*

Enekoitz Esnaola / Donostia

MIKEL ARANBURU jokalaria gazteak Realekin segituko du apirilean ere, ez baita joango Nigeriara 20 urtez azpikoen Munduko Txapelketa jokatzera Espainiako selekzioarekin, ez baitiote deitu. Atzo eman zuen deialdia Iñaki Saez hautatzaileak, eta Aranburu azpeitiarra ez zen ageri hemezortzi jokalariko zerrendan.

Azken unea arte guztiak ere dudan egon dira. Jokalariak berak ez zekien deituko zioten ala ez, nahiz eta lehengo astean ez parte hartu Espainiako selekzioaren entrenamenduetan eta ez jaso jokalariek Nigeriara joateko beharrezkoa zuten txertoa —gaixorik zegoen egun haietan Aranburu—. Baina gaur egun 20 urtez azpiko mutil gutxi daude Espainiako Ligako talderen batean titular —zerrendatik Alaveseko Gerard baino ez da ohiko

titularra, eta Barcelonako Xavik ere dezentetan jokatzen du—, eta horregatik zeuden Aranburu bera eta Realak dudan, azpeitiarra titularra delako orain Realean. Jokalariari eta klubari ez zitzaion askorik interesatzen mundialera joatea, mutila lau bat partidutan egongo zitekeelako lehen talde txur-urdinarekin jokatzeke.

Alberto, Pikabea, Arazanbal eta Aranburu

Hain zuzen, Aranburu da Realean Ligako azkeneko sei partiduetan titular jokatu duen bakarretakoa. Alberto, Kote Pikabea, Agustin Arazanbal eta laurak dira azkeneko sei neurketetan hasieratik zelairatu diren bakarrak. Eta horrek zerbait esan nahi du. Alegia, Bernd Krauss entrenatzaileak konfiantza handia duela mutil gazte azpeitiarrarengan. Kraussek hasiera



Mikel Aranburu, Zubietan entrenatzen.

Aranburu 98-99ko Ligan

Partiduak	Minutuak
20. Mallorca-Reala	90
21. Real-At. Madrid	80
22. Deportivo-Reala	60
23. Real-Villarreal	90
24. Valladolid-Reala	45
25. Real-Barcelona	90

batean Aranburu lehen taldean «pixkanaka» sartzen joateko asmoa zeukan, baina jokalariek ausart jokatu du, jokoa sortu du, gol garrantzizko bat ere egin du —Atletico de Madriden kontra—, eta entrenatzaileak kontraesanean erori

behar izan du, ezinbestean. Ez du, ordea, inork kritikatu horregatik.

Aranbururi orain dela hilabete pasatxo ere deitu zioten Espainiako selekziara, baina giharretako arazoekin zegoen orduan eta ez zen joan.

Orain, jakinda ez dela Nigeriako Mundialera joango, oso partidu erakargarri bat jokatu ahal izango du: apirilaren 4an, Athletic-Real derbia.

Aitzitik, Jose Javier Barkero, Real B-ko erdilari aretxabaletarra joango da 20 urtez azpikoen mundialera. Bera da Realetik joango den bakarra.

hor zain

Sei euskal jokalarik 20 urtez azpikoen mundialera

Iñaki Saez Espainiako selekzioaren hautatzaileak sei euskal jokalariri deitu die 20 urtez azpikoen Munduko Txapelketa jokatzeko: Athleticen Daniel Aranzubia atezaina eta Francisco Javier Yeste erdilari, Osasunako Francisco Jusue atzelaria eta Pablo Orbaiz erdilari, Realeko Jose Javier Barkero erdilari eta Real Madrideko Iker Casillas atezaina. Mundiala Nigeriara jokatu da, apirilaren 3tik 24ra.

Amerikako Kopa jokatuko duela dio Ronaldok

Ronaldok ez du partidurik jokatu Brasilekin Frantziako Mundialaz geroztik, maiz min hartuta egon delako, baina esan du udan «dudarik gabe» bere selekzioarekin izango dela Amerikako Kopa jokatzeko.

Collymorek ez du denboraldian gehiago jokatu, «depresioagatik»

Stan Collymore, Aston Villako aurrelaria, «depresioak jota» dago otsailetik, eta, hori dela-eta ez du denboraldi honetan gehiago jokatu, atzo John Gregory entrenatzaileak esan zuenez. Aurrelari ingeles onenetakoa da Collymore.

Denilsonen truke De la Peña nahi ei du Loperak

Atzo Italiako egunkari batek zioen, Betiseko buruzagiak, Manuel Ruiz de Loperak, Denilson Betisetik Laziora bidali nahi du, haren trukean Laziotik Ivan De la Peña fitxatzeko. Betisek bost mila milioi inguru ordaindu zituen Denilsonarekin, eta Lazio horren erdia De la Peñarekin.

Errekopako finala Birminghamen jokatuko dela berretsi dute

Chelsea Errekopako finalerdietan da, eta finala Wembley estadioan jokatzea gustatuko litzaiokeela esan du, baina UEFAk esan dio ezetz, finala Birminghamen jokatuko dela, aurretik erabakita dagoen bezala.

Futbola ♦ Kosovoko gatazka dago horren atzean, eta Mazedonia-Hego Irlanda ere atzeratu du

UEFAk atzeratu egin du Jugoslavia-Kroazia

Agentziak / Geneva

UEFAk atzeratu egin du etzi jokatzekoa zen Jugoslavia-Kroazia partidua. Kosovoko gatazka dela eta, NATOko Jugoslaviako zenbait toki bombardatzeko agindua eman du, haien artean Belgrado —han zen jokatzekoa partidua—, eta horregatik hartu du UEFAk erabaki hori. Abuztuaren 18an jokatuko da Jugoslavia-Kroazia, 2000ko Eurokoparako sailkapen faseko partidua. Hil

honen 31n jokatzekoa zen Jugoslavia-Mazedonia ere atzeratu egin du, irailaren 4a arte. Baita Mazedonia-Hego Irlanda ere; neurketa Skopje hirian jokatu behar zen, larunbatean, eta hego irlandarrek segurtasun neurriak galdin zituzten, hainbat iheslari Skopjeko hotel batean daudelako eta hego irlandarrek hotel horretan kontzentratzeko asmoa zutelako. Mazedoniak jada hoge mila iheslari hartu ditu.

Jugoslaviako egoera dela



Kovacevic, Realeko jugoslaviarra.

eta, hango Futbol Federazioaren presidente Branko Bulatovic «lasai» egoteko eskatu die jokalariei jugoslaviarrek dituzten klubei, besteak beste, Realari, Darko Kovacevicek bertan jokatzen baitu. «Jokalariei asko Budapestera abiatu dira, errepidez, eta, beranduenez, bihar [gaur] bakoitza bere taldearekin egongo da», zioen atzo Bulatovic. Kovacevic Budapestera joan zirenetako bat da, gero hegazkinnez Madrilera joateko eta handik Donostiara etortzeko.